



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO UZTAILAREN 8AN  
GOIZEKO 8:35EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Mertxe Aizpurua Arzallus.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin.

**Ezinetorria adierazi dute:** Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

• **2014/06/06KO EZOHIOA.**

Batzarkideek, 2014ko ekainaren 6ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

• **2014/06/10EKO OHIOA.**

Batzarkideek, 2014ko ekainaren 10eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

• **2014/06/24KO OHIOA.**

Batzarkideek, 2014ko ekainaren 24ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- M. JESUS ZULAIKA APAOLAZA ANDREAK ETA ANDRES IBARGOYEN ZULAIKA JAUNAK, KALEZARKO UGARTETXIKI BASERRIAN PIPERRAK ONTZIRATZEKO DUTEN JARDUERA LEGEZTATU ETA IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.07/2007-0338

M. JESUS ZULAIKA APAOLAZA andreak eta ANDRES IBARGOYEN ZULAIKA jaunak, Kalezarko Ugartetxiki baserrian piperrak ontziratzeke duten jardueraren legeztatzea eskatu dute.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2007-0338

ESKATZAILEA: M. JESUS ZULAIKA APALOAZA eta ANDRES IBARGOYEN ZULAIKA

JARDUERA MOTA: Piperrak ontziratzeke jarduera legeztatzea

NON KOKATUA: Ugarte txiki baserria (Kalezar, 83) / Usurbil



Usurbilgo Udala



## AURREKARIAK

2008ko martxoaren 4an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ALDEKO txostena eman zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2008ko martxoaren 25ean, jardueraren legeztapenari Aldeko informea eman zion.

2008ko uztailaren 16an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak jarduera sailkatu eta aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak ezarri zituen.

## IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, 2014ko apirilaren 8an, jardueraren legeztapena lortzeko dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

Espedientea aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegik, ondoko txostena eman du:

### TXOSTEN TEKNIKOA JARDUERA LEGEZTATZEA

**GAIA:** UGARTE TXIKI BASERRIAN PIPERRAK ONTZIRATZEKO EZARRITAKO JARDUERA LEGEZTATZEA

**KOKAPENA:** UGARTE TXIKI BASERRIA, 83.

**UDAL TEKNIKARIA:** IBON GOIKOETXEA RETEGI

**DATA:** 2014-06-20

**ESPEDIENTE ZKIA.:** HZ.07 2007/0338

## AURREKARIAK

- 2002ko irailean Udala Ugarte Txiki baserrian piperrak ontziratzeko jarduera izapidetzen hasi zen. Ondoren, behin jarduera abiatuta, 2007ko irailean berriz abiatu zen legeztatze prozedura eta 2008ko irailak 10ean irekiera baimena emateko hurrengo instalazioak gauzatu beharra adierazi zitzaion.
  1. Itzalgailuen kokapenaren planoan (4.planoa) zehaztutako eran ezarriko dira aurreikusitako lau itzalgailuak:
    1. Hauts balioanitzeko hiru su itzalgailu 21A-113B eraginkortasuna duena.
    2. CO2ko itzalgailu bat 34Bko eraginkortasuna duena.
  2. Projektuan aurreikusitako emergentziazko argiak ezarriko dira (4.planoa)
- 2014ko apirilak 8an interesatuak suaren kontrako neurriak jarri dituela jakinarazi eta irekiera baimena ematea eskatzen du.
- 2014ko ekainak 13an ikuskapena egiten du, txostena izenpetzen duen teknikariak.

## AZTERKETA eta PROPOSAMENA



Usurbilgo Udala



Ikuskapenean, eskatutako 4 itzalgailuak eta emergentziako argiak proiektuan jasota bezala daudela. Era berean, instalazioaren kostuaren ziurtagiria aurkeztu da. Ondorioz, ALDEKO txostena igortzen dut eta irekiera baimena ematea proposatzen.

Usurbil, 2014ko ekainaren 20an  
Ibon Goikoetxea Retegi  
Ingurumen eta Nekazaritza Teknikaria

Eskaria kontutan hartuz, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** M. JESUS ZULAIKA APAOLAZA andereak eta ANDRES IBARGOYEN ZULAIKA jaunak, Kalezarko Ugartetxiki baserrian piperrak ontziratzeke duten jarduera legeztatu eta irekitzeko baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

### **3.- MIN WEI XIANG JAUNAK, URBIL MERKATAL ZENTROKO B-8 LOKALEAN EZARRI DUEN WOK X & Y JATETXEA IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.07/2013-0211

MIN WEI XIANG jaunak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Urbil Merkatal Zentroko B-8 lokalean ezarri duen WOK X & Y jatetxearen irekiera baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2013-0211

ESKATZAILEA: MIN WEI XIANG

JARDUERA MOTA: WOK X & Y jatetxea

NON KOKATUA: Urbil Merkatal Zentroa, B-8 lokala – Txikiardi – Usurbil

### **AURREKARIAK**

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 173. zenbakia, 2013ko irailaren 11ean). Jendaurreko epealdian ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2013ko abuztuaren 2an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 2837 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2013ko irailaren 13an aldeko informea eman zuen.

Ondoren, 2013ko urriaren 22an, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen.



Usurbilgo Udala



Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko urriaren 29an, Urbil Merkatal Zentroko B-8 lokalean WOK X & Y jatetxea ezartzeko obretako udal baimena eman zion MIN WEI XIANG jaunari.

## **IREKIERA BAIMENA**

Orain berriz, MIN WEI XIANG jaunak ezarritako jardueraren irekiera baimena eskatu du.

Eskaera aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallusek, ondoko txostena eman du:

ESKAERA: JARDUERA IREKITZEKO BAIMENA  
JARDUERA: OSTALARITZA  
**ESKATZAILEA: Min Wei Xiang**  
**KOKALEKUA: Urbil merkatalgunea B 8 (Txiki Erdi 7)**  
**LURZORU SAILKAPENA: Hiri lurzorua**  
**ESP.ZENB.: HZ-07/2013-0211**

### AURREKARIAK

Txiki Erdiko Urbil merkatalguneko B8 lokalean ostalaritza jarduera irekitzeko baimena eskatu zuen du Min Wei Xiang-ek.

Jarduerarako ezarritako neurri zuzentzaileak osatu ziren egiaztatzeko, ikuskapena burutu zen 2014ko otsailaren 20an.

Egindako ikuskapenaren ondorioz, aurkeztutako dokumentazioa eta neurri zuzentzaileak osatzeko dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu zen, 2014-02-20 eta 2014-06-16an idatzitako txostenen bidez.

### TXOSTENA

2014-02-20 eta 2014-06-16an idatzitako txostenetan eskatutako informazio osagarria aurkeztu du eskatzaileak, eta

Txiki Erdiko Urbil merkatalguneko B 8 lokaleko neurri zuzentzaileak bete dituzenez, eta eskatutako dokumentazio osagarria aurkeztu duenez, jarduerarako baimena eskatzen du Min Wei Xiang-ek.

Jardueraren lokala, AASSetako A-108 eremuan kokatzen da, Tertiario Merkataritza erabilera onartzen delarik.

Jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituzenez, aldeko txostena ematen da jarduerari.

2014ko ekainak 25  
Udal aparejadorea  
Felix Aizpurua



Usurbilgo Udala



Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** MIN WEI XIANG jaunak, Urbil Merkatal Zentroko B-8 lokalean ezarri duen WOK X & Y jatetxea irekitzeko baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 08:40ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**